Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO
KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA
ÁREA DE CULTURA Y EDUCACIÓN

izan
BILBAO
ondarearen sustapena
promoción del patrimonio

9 788488 714527

Antzinako Deustuko Elizatea - La antigua Anteiglesia de Deusto

1.



OSTERAK BILBOKO AUZOETATIK

PASEOS POR LOS BARRIOS DE BILBAO

1.

Antzinako Deustuko Elizatea
La antigua Anteiglesia de Deusto

OSTERAK BILBOKO AUZOETATIK

PASEOS POR LOS BARRIOS DE BILBAO

1.

Antzinako Deustuko Elizatea

La antigua Anteiglesia de Deusto

Edizioa / Edición:
Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Saila
Área de Cultura y Educación del Ayuntamiento de Bilbao

Edizioaren zuzendaritza / Dirección de la edición:
Aixeder Servicios Culturales, S.L.

Testua / Texto:
Iñaki Pereda García

Argazkiak / Fotografía:
Juanma Aparicio

Itzulpen lanak / Traducción:
ASAP traducciones

Diseinua eta maketazioa / Diseño y maquetación:
ouidesign

Inprimaketa / Impresión:
Gestingraf

Lege-gordailua / Depósito legal: BI - 744 - 2010

ISBN Obra Completa: 978-84-88714-49-7
ISBN volumen: 978-84-88714-52-7



1.
Antzinako Deustuko Elizatea
La antigua Anteiglesia de Deusto

Aurkibidea
Indice

Lehenengo ibilbidea: Deustuko Doneperiaga

Primer recorrido: San Pedro de Deusto 9

Bigarren ibilbidea: Deustuko Erribera

Segundo recorrido: La Ribera de Deusto..... 25

Hirugarren ibilbidea: San Inazio

Tercer recorrido: San Ignacio 45

Laugarren ibilbidea: Ibarrekolanda-Sarriko

Cuarto recorrido: Ibarrekolanda-Sarriko..... 65

Aurkezpena
Presentación

2005. urteaz geroztik Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailak hiriko kultur ondarea zabaldu eta sustatzeko abian jarri zituen bisitaldi gidatuei buruzko hainbat programaren emaitza da argitalpen hau. Esan bezala, 2005ean, Bilboko auzoak ezagutzeko ordezko proposamen bati ekin zion Udalak: *"Bilbo: hil bakoitzean, auzo bat"*. Ekimen hark herritarren artean onarpen zabala izan zuenez, kultura-eskaintzak bi urte gehiago iraun zuen. Eta ekimen haren ondoren, beste ekimen batzuk, berariazkoagoak, antolatu ziren, hain zuzen, hiribilduko txoko guztietara iristearren: *"Botxoko mendi-mazelak deskubritzen"* (2008) eta *"Hamabi begirada Bilbori"* (2009).

Antzinako Deustuko Elizatea argitalpen honen eskutik abiarazi dugun bildumak, hortaz, ez du ikerketa-lan zehatza izan nahi, ezta arkitektura-gida edo turismo-sustapeneko ohizko ibilbidea ere. Zeren eta, ororen gainetik, bisitaldi gidatu haietan erabili ziren edukien moldaketa baita. Bilbotik ibiltzeko gogoa ematea du helburu, baita hiriko auzoak sakon ezagut daitezen ere. Eta lehenengo liburuki honetan aurkeztuko dizkizugun auzoetatik hasiko gara ibiltzen. Bisitatu eta ezagutu barrutik.

Esta publicación es el resultado de diversos programas de visitas guiadas para la difusión y promoción del patrimonio cultural bilbaíno que, en 2005, puso en marcha el Área de Cultura y Educación del Ayuntamiento de Bilbao. En ese año 2005, con el lema *Bilbao: un mes, un barrio*, comenzó esta propuesta de conocimiento alternativo de los barrios de nuestra ciudad; un notable interés ciudadano por la iniciativa motivó que, durante dos años más, se mantuviese esta oferta cultural. A ella le siguieron otras de carácter más específico, con el objetivo de llegar a todos los rincones de la Villa, como *Descubriendo las laderas del Botxo*, durante el año 2008, y *Doce miradas sobre Bilbao*, en 2009.

La colección que ponemos en marcha con la presente edición dedicada a *la antigua Anteiglesia de Deusto* no pretende ser un trabajo exhaustivo de investigación; no quiere ser una guía de arquitectura ni un recorrido de promoción turística al uso. Es, sobre todo, una adaptación de los contenidos utilizados en aquellas visitas guiadas, cuyo fin es invitar a recorrer Bilbao y promocionar el conocimiento específico de sus barrios, comenzando por los que os presentamos en este primer volumen. Os animamos a que los visitéis con la ayuda de esta guía y los conozcáis así más en profundidad.

“ZELAN ERABILI GIDA HAU”

Gida honetan azaldutako ibilbideak egiteko ezinbestekoa da barruan aurkituko dituzun planoak erabiltzea. Plano horietan abiaburua eta testuan aipatutako eta zenbaki batez identifikatutako ondareak aurkitu daitezke. Leku jakinei buruz gidan egiten diren aipamenak lagungarriak dira ibilbidean kokatzeko eta leku horietatik testuan aipatzen diren elementuak aurkitzeko. Ez dira nahastu behar elementu bakoitzari jarritako zenbakiak kaleetan dagozkien zenbakiekin. Azken hauek, batzuetan, errazago aurkitzeko bakarrik aipatu dira.

“COMO USAR ESTA GUÍA”

Para hacer los itinerarios que se describen en esta guía es imprescindible consultar los planos que encontraremos en el interior. Éstos nos permitirán situar el punto de inicio y los elementos patrimoniales citados en el texto e identificados con un número. Las referencias a lugares concretos que se hacen en la guía nos ayudan a situarnos en el itinerario y a descubrir desde ellos los diferentes elementos que se comentan en el texto. No se debe confundir el número atribuido a cada elemento con los números que les corresponden en las calles, citados a veces estos últimos sólo para facilitar su localización.



Sarrikoko metro-geltokia
Estación de metro de Sarriko



Laugarren ibilbidea:

Ibarrekolanda–Sarriko

Abiapuntua: Sarrikoko metro-irteera

Ibilbide honi ekiteko, Sarrikoko metro-geltokitik abiatuko gara. Izan ere, metroa, XXI. mendeko Bilbo hiriaren proiektu nagusienetako bat izan da, eta metropoli-area erraz antolatzen du. Area hau, Gerra Zibila bukatu ondoren, nabarmen urbanizatu zen, lehenago izan zuen irudi idilikoa ez bezalako ingurua sortuz.

Cuarto recorrido:

Ibarrekolanda–Sarriko

Punto de inicio: salida del metro de Sarriko

Partimos en este itinerario de la estación de metro de Sarriko, que viene a representar uno de los grandes proyectos del Bilbao del siglo XXI y que articula de forma fácil el área metropolitana. En contraste con la imagen idílica que antes tuvo, nos encontramos con un área fuertemente urbanizada tras finalizar la contienda civil.

Sarrikoko metro-geltokia
Estación de metro de Sarriko



Sarrikoko metro-geltokia (1) Norman Foster arkitektoak proiektatu zuen. Eusko Jaurlaritzak Bilboko metropoli-areako metroa egiteko lehiaketa iragarri zuen 1988n, hiri-barruko komunikazio-azpiegituren gabezia larria konpontzeko asmoz. Arkitektura-proiektu irabazlea, Norman Foster arkitekto ingelesarena izan zen, oso konponbide egokiak proposatu baitzituen lurpeko espazioak antolatzeko eta horietara berinapeen bidez jaisteko. Geroago, herritarrek "fosterito" izena eman zieten berinape bitxi horiei. Sarrikoko metro-sarbidea, ikusgarrienetako bat da, oso altua eta zabala delako. Unibertsitatetik hurbil dagoenez, pertsona ugari sar eta irten zitezen proiektatu zuen horrela arkitekto entzutetsuak.

La estación de metro de Sarriko (1) fue realizada por Norman Foster. El Gobierno Vasco convocó, en el año 1988, el concurso para acometer la realización del metro del área metropolitana de Bilbao, que debía resolver el grave déficit de infraestructuras de comunicaciones. El proyecto arquitectónico lo ganó el citado arquitecto inglés, quien aportó soluciones muy acertadas a la organización de los espacios subterráneos y a su descenso, partiendo de las marquesinas popularmente conocidas como *fosteritos*. La boca de metro de Sarriko es de las más espectaculares por su gran desarrollo en altura y anchura; es una solución para acoger una mayor capacidad de entrada y salida de personas, pensando en la proximidad de la universidad.



BEHINOLAKO BASERRIALDEA

"Sarriko" ("sarri", "tupido", gaztelaniaz), duela gutxiko leku-izena da, XX. mendearen hasierara arte ez baitzen agertu. Hitzaren jatorria, Zubiriatarren finkarekin bakarrik dago lotuta. Geroago, finka hori parke bilakatu zen, eta bertan EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko egoitza kokatu zen. Termino hori, gero eta gehiago hedatu da herritarren artean, izen bereko metro-geltokia dela-eta. Haatik, zuzenagoa litzake, Sarriko Ibarrekolandan sartzea (Salestarren ikastetxearen eta San Inazio auzoaren eta Deustuko kanalaren eta Enekuri etorbidearen arteko ingurua).

Garai bateko Deustuko elizateko inguru hori baserrialdea zen Gerra Zibila baino lehen eta ortuez eta landez josia zegoen. Jendez hustutako inguru hartan, han-hemenka, jauregiren bat (esaterako, Otaolatarrena), baserriak eta txakolindegiak (hala nola, "Arbolagaña" eta Serapio Irustarena, Enekurin) zeuden. Jovellanosek 1797an Bizkaiko Jaurerrira bigarren aldiz bidaiatu zuenean, Deustuko ibarren egoera atsegingarriaz idatzi zuen. Madozek ere, XIX. mendean, Deustuko baserrialde hartaz aritu zen modu bukolikoan ("es ameno y frondoso; se cultiva el trigo, el maíz, patatas, hortalizas, legumbres, frutales, ganado vacuno, caballar, lanar y de cerda; se da la caza de liebres, perdices, conejos, palomas y pesca de angulas y bermejuelas").

ANTIGUAS ZONAS RURALES

Sarriko, acepción de "tupido" en euskera, es un topónimo relativamente reciente, ya que no aparece hasta comienzos del siglo XX. Su origen está vinculado, única y exclusivamente, a la finca propiedad de la noble familia de los Zubiría, convertida después en parque y sede de la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales de la UPV. Este término ha ganado extensión popularmente, debido también a la estación de metro. Sin embargo, es más correcto englobar Sarriko en Ibarrekolanda, como zona comprendida entre el colegio Salesianos y San Ignacio, y entre el canal de Deusto y la avenida de Enekuri.

Toda este espacio de la antigua anteglesia de Deusto era antes de la Guerra Civil eminentemente rural, dominado por huertas y campas. En un entorno muy despoblado, existía algún palacio como el de Otaola, caseríos y txakolis (como el de Arbolagaña, el de Serapio Irusta en Enekuri, etc.). Cuando Jovellanos realizó su segundo viaje al Señorío en 1797, hizo referencia a la situación deliciosa de las vegas de Deusto. También Madoz en el siglo XIX se refirió a este Deusto rural de forma bucólica ("es ameno y frondoso; se cultiva el trigo, el maíz, patatas, hortalizas, legumbres, frutales, ganado vacuno, caballar, lanar y de cerda; se da la caza de liebres, perdices, conejos, palomas y pesca de angulas y bermejuelas").

EHUko "Larrako Etxea" informazio-bulegoaren aurrean (Agirre Lehendakariaren etorbideko 83. zenbakia)

Gaur egun herritar guztiek erabiltzen dituzten toki horiek (EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea, Musika Kontserbatorioa, Metroa...), familia bakar batenak izan ziren hainbat hamarkadaz. Gaur egun, Fakultatearen barruan, Zubiriatarren finkakoak izan ziren eraikinei eta parkeen aztarnari jarrai diezaiekegu.

Gaur egun, Sarrikoko parkean, garai bateko finkako hiru eraikinek diraute, Fakultateko bulego bihurtzeko eraberritu badira ere. Horietako bi, Manuel Maria Smithen lanak dira, Gerra Zibilaren ondorengoak: atezaindegi berria (egungo sarbidearen ondoan dago eta EHUko informazio-gune bilakatu da) eta "El Cortijo", konde-kondesa bizi ziren tokia. Hirugarrena, "Tirol" etxea da: finkaren sarbidean zegoen behinolako atezaindegia zen, estilo ingelesa zuen eta 1906an eraiki zen. Fakultatera sartzerakoan ikusiko ditugu.

Atezaindegi berria (EHUko "Larrako Etxea" egungo informazio-bulegoa) (2). Agirre Lehendakariaren

Frente a la oficina de información "Larrako Etxea" de la UPV, Lehendakari Aguirre n.º 83

Estos espacios, hoy de uso público (Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales de la UPV, Conservatorio, metro...), fueron durante muchas décadas zonas de disfrute privado de una familia. Aún hoy podemos rastrear edificaciones y parques que pertenecieron a la finca de la familia Zubiría dentro de la facultad.

En el parque de Sarriko quedan en la actualidad tres edificaciones de la antigua finca, aunque han sido reformadas para diversas dependencias de la facultad. Dos de ellas son obra de Manuel María Smith, posteriores a la Guerra Civil: la nueva portería (junto al actual acceso y reconvertida en centro de información de la UPV) y *El Cortijo*, lugar donde residían los condes. La tercera es la casa *Tirol*, antigua portería que daba acceso a la finca, realizada en estilo inglés en 1906. Las observaremos entrando en la facultad.

La nueva portería (actual oficina de información "Larrako Etxea" de la UPV) (2). El trazado de la avenida Lehendakari Aguirre (antigua avenida del Ejército) obligó a



“SARRIKO”, GOI-BURGESIAKO GARAI BATEKO FINKA

XIX. mendearen bukaeraz geroztik, familia burges batzuk Deustun kokatu ziren, beren gizarte-klasearekin bat zetozen toki zabalagoen bila. Joan den mendeko 20ko hamarkadan, Bizkaiko goi-burgesiako hainbat familia behin betiko kokatu ziren bertan, hala nola, Zubiriatarrak, “Sarriko” izeneko aisiako finka ederraren jabe zirenak. Familiak zuen erosteko ahalmenaren adibide gisa, 1920. urtean Deustuko 23 ibilgailu matrikulatuen artean 5 Zubiriatarrenak ziren. Tomas Zubiria e Ybarra zen familiako kiderik ezagunena; enpresa-jarduera ugari egin bazituen ere, bi hauek bilakatu zuten entzutetsu: Altos Hornos de Vizcaya (AHV) eta Sociedad Española de Construcción Naval (“La Naval”) baltzuetako buru izan zen. Izan ere, bi enpresa horiek eratzen esku hartu zuen. Banco de Vizcaya-ko buru ere izan zen. 1908an, Alfonso XIII.ak konde titulua eman zion.

Finka handi hartan, familiako beste kide batzuentzako erakin batzuk ere eraiki ziren, esaterako, Manuel Zubiriaren Etxea.1942. urte inguruan, Zubiria kondesa finkatik joan zen. Geroago, 50eko hamarkadaren erdialdean, kondesak lur horiek dohaintzan eman zituen, bertan Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea eraiki zedin. 1955eko maiatzaren 16an eratu zen Fakultatea.

“SARRIKO”, UNA ANTIGUA FINCA DE LA ALTA BURGUESíA

A finales del siglo XIX se fueron instalando en Deusto diversas familias burguesas que buscaban espacios más amplios y dignos de su condición social. En la década de 1920 se ubicaron definitivamente una serie de familias de la alta burguesía de Bizkaia, como los Zubiría, con su hermosa finca de recreo “Sarriko”. Un ejemplo de su amplio poder adquisitivo es que, en 1920, existían en Deusto 23 vehículos matriculados, de los cuales cinco eran propiedad de la familia. Su miembro más destacado fue Tomas Zubiría e Ybarra. Entre sus múltiples actividades empresariales, hay dos por las que fue conocido: la presidencia de Altos Hornos de Vizcaya y la de la Sociedad Española de Construcción Naval (conocida como La Naval), empresas ambas en cuya creación intervino decisivamente. También fue presidente del Banco de Vizcaya. En 1908, Alfonso XIII le concedió el titulo de conde.

Asimismo sabemos que en esta amplia finca se construyeron algunas edificaciones para otros miembros de la familia, como la casa de Manuel Zubiría. Hacia 1942, la condesa de Zubiría dejó de residir en la finca. Posteriormente, hacia mediados de la década de los cincuenta, donó los terrenos para construir en ellos la futura Facultad de Ciencias Empresariales y Económicas, que se creó el 16 de mayo de 1955.

etorbidearen (garai bateko "Avenida del Ejercito") trazadurak, finkako atezaintza berria eraikitzera behartu zuen, zaharra errepidetik oso urrun geratu zelako. M.M. Smith arkitektoak proiektatu zuen 1941ean, eta kondekondesaren egoitza nagusiaren estiloarekin bat etorriz eraiki zuen. Finkaren administratzaileen etxebizitza zen. Aurreko fatxadan, Canterburyko Santo Tomasen (Tomás Becket, 1117-1170) bizitzaren eszena batekin apainduta dagoen horma-hobia dago. Gaur egun, eraikin horretan egindako eraberritze-lanen ondorioz, jatorrizko fisonomiaren elementu garrantzitsuak desagertu egin dira, batez ere, atzeko fatxadan, zeinetatik erdi-puntuko baoak desagerrarazi diren. Aurreko fatxadako baoak, berriz, bertan daude, *Old English* estiloko eraikinetako *inglenook* (tximinia) tipikoa bezala. Erdi-puntuko arkuko beribilen sarbidea ere desagertu egin da.

construir una nueva portería para la finca, ya que la antigua había quedado muy alejada de la carretera. La proyectó el arquitecto M. M. Smith en 1941, y armonizó su estilo con el de la residencia principal de los condes. Era la vivienda de los administradores de la finca. Cuenta en la fachada delantera con una hornacina decorada con una escena de la vida de Sto. Tomás de Canterbury (Tomás Becket, 1117-1170). En la actualidad, las reformas realizadas en este edificio le han hecho perder elementos importantes de su fisonomía original, sobre todo en su fachada trasera, donde han desaparecido los vanos de medio punto. Estos se mantienen, sin embargo, en la delantera, de la misma forma que el típico *inglenook* (chimenea) de los edificios estilo *Old English*. El acceso para coches en arco de medio punto es otro elemento desaparecido.

Atezaindegi berria

La nueva portería









"Tirol" etxea

Casa "Tirol"



Parkearen barruan gaudela, lorategiaren erdian dagoen sakonune bat gertatzen zaigu deigarri. **Garai bateko urmaela** da **(3)**. Ixte-hormaren zati batek dirau oraindik. Adreiluzko horma finkaren garaikidea da.

Una vez en el interior del parque, llama la atención una depresión existente en el centro del jardín. Se trata del **antiguo estanque (3),** que conserva parte de su muro de cierre. Coetáneo a la finca es también el muro de ladrillo.

Parkeko zuhaitz exotikoak

Arboles exóticos del parque



Bidexka batetik gabiltzala, ezkerretara jotzen badugu, **"Tirol" etxea (4)** izeneko eraikin txiki bateraino iritsiko gara. Familiaren jatorrizko etxebizitza Severino Achucarrok proiektatu zuen XIX. mendearen bukaeran eta Gerra Zibilean suak hartu zuen. Finkaren faserik zaharrenekoa, garai bateko (1906an eraiki zen) atezaindegia da, bi solairukoa. *Old English* estiloa du eta jatorrizko etxebizitzaren sarreraren ondoan dago. Gaur egungo birgaitzeak jatorrizko koloreak aldatu ditu, baita ateak eta baoak ere.

Avanzando por una senda a mano izquierda llegamos a la pequeña edificación conocida como **casa *Tirol* (4).** La primitiva vivienda de la familia fue proyectada por Severino Achúcarro a finales del siglo XIX y se incendió durante la Guerra Civil. De esta fase más antigua de la villa se conserva esta antigua portería, construida en 1906 y que presenta dos pisos. Es de estilo *Old English* y está situada junto a la entrada de la antigua vivienda. La rehabilitación actual ha modificado los colores con que fue diseñada, así como sus puertas y vanos.

Lorategia etxe burgesen bereizgarria da. Askotan, landare eta lore exotikoez apaintzen ziren; esaterako, "Sarriko" finkan espezie hauek zeuden: palmondo kanariarrak, magnoliak, sekuoiak, pinazipinuak, gerizpe-palmondoa, ezkia, indigaztainondo arrunta, makalak, eukaliptoak, larizio pinua, *sofora japoniarra*, zedroak, *Reuteria radiculata aza*, *Cercis siliquastrum* (amodio-zuhaitza), lizarrak... Espezie batzuk, hala nola, magnoliak, zedroak, sekuoiak eta palmondoak oso baliotsuak dira. Eukalipto handiak deigarriak dira, Bilbon

Un elemento destacado de las casas burguesas es su jardín, frecuentemente con especies exóticas. En el caso de "Sarriko" aparecen palmeras canarias, magnolios, secuoyas, *Pinus Pinea* (pino piñonero), plátanos de sombra, tilos, castaños de Indias, chopos, eucaliptos, *Pinus nigra*, *Sofora Japónica*, cedros, *Col Reuteria radiculata*, *Cercis Silicuastrum* (árbol del amor), fresnos... Algunos ejemplares, como los magnolios, los cedros, las secuoyas y las palmeras, son de gran valor. Llama la atención la presencia de grandes eucaliptos,

bakanak direlako (oso altuak direnez, lau urtez behin mozten dira). Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) da lorategien jabea, zati publikoa Udalari laga bazitzaion ere, herritarren erabilera eta luperketarako.

Zubiriatarren lorategiaren antzeko lorategiak, Ingalaterrako hemeretzigarren mendeko etxe handi eta dotoreetan inspiratzen ziren, eta horietan, belardiak, albo banatan zuhaitzak zituzten etorbideak, giro formal txikiak, urmaelak, glorietak eta iturriak zeuden, besteak beste. Etxe viktoriarren bereizgarri ziren eraikin bitxiak ere bazeuden, esaterako, **harrizko portale baten hondakinak** daude **(5)**, baita 1928ko garaipen-arku bat ere (Zubiriatarren armarria du). Loretegia inguratzen duen bidexkatik bagabiltza aurkituko dugu arku hori.

Garaipen-arku horren hondakinak atzean utzi eta **"Zubiria Etxea" erakinera (6)** iritsiko gara **("El Cortijo" izenarekin ezagutzen zen behinola).** 1939an, Manuel Mª Smith arkitektoak Zubiria kondesaren jauregi berria proiektatu zuen lehenagokoaren (gerra zibilean suak hartu zuena) leku berean. 1939. urtea baino lehen, arkitekto horrek, konde-kondesaren finka birmoldatu eta apaintzeko hainbat proiektutan parte hartu zuen. 1928an, finka horretan Altzairuari buruzko Biltzarraren ekitaldietarako una especie rara en Bilbao; debido a su altura, se cortan cada cuatro años. El titular de los jardines es la UPV, aunque la parte pública está cedida al Ayuntamiento para uso y disfrute general.

Los jardines como el de los Zubiría estaban inspirados en las residencias decimonónicas inglesas y contaban con zonas de pradera, avenidas flanqueadas por árboles, pequeños ambientes formales, estanques, cenadores, fuentes... También tenían construcciones caprichosas y pintorescas, típicas de las residencias victorianas. Un ejemplo son las **ruinas de un portalón en piedra (5)** o arco de triunfo, realizado en 1928 y que lleva el escudo de la familia Zubiría. Lo encontraremos siguiendo la senda que bordea el jardín.

Tras dejar atrás las ruinas del arco llegamos a **"Zubiría Etxea", antiguo edificio conocido como "El Cortijo" (6).** En 1939, el arquitecto Manuel M.ª Smith proyectó el nuevo palacio de la condesa de Zubiría en el mismo emplazamiento que el anterior, quemado durante la Guerra Civil. Antes de 1939, este mismo arquitecto ya había intervenido en diversos proyectos de remodelación y decoración en la finca de los condes. En concreto, con la intención de engalanar el jardín para los actos del Congreso del Acero que se celebraron en la finca, había

"El Cortijo"

Portale baten hondakinak

Ruinas de un portalón







lorategia edertzeko, beste pabilioi bat eta igerileku batzuk eraiki ziren. Egoitza berria proiektatzeko, kortijo andaluziarretan inspiratu zen eta barruko patiodun solairuko eskema hartu zuen. Horregatik ezagutzen da "El Cortijo" bezala. Gaur egun, eraikin hori birmoldatuta dago, eta atzeko horma desagertu egin da. Unibertsitateko gela batzuk daude bertan, hala nola, katedrak, institutuak eta graduaretoa. Jatorrizko elementu gehienak (leihoak, apaingarriak...) desagertu egin dira, "U" formako solairua ez ezik.

Lorategi horretan beste elementu bitxi bat aurkitu dugu: **iturria (7).** Iturri hori beste finka batetik ekarri omen zen. Iturriko zotza marmol zuriaz egin zen, Almeriako edo Italiako harrobietako marmol zuriaz.

Larrako Dorrearen hondakineranzko bidea

Finka dagoen goragunetxoa inguratzen duen bidetik jarraitzen dugu, eta bidean behera, **Larrako Dorrearen hondakinak (8)** dauden tokira iritsiko gara.

Larrako Dorrearen jatorrizko kokapena (Claudio Garayen antzinako baserriari atxikia), San Inazioko gaur egungo anbulatorioaren atzealdea zen (Larrako Dorrea kalea). Egun, areto-futboleko zelaia dago bertan.

levantado en 1928 un nuevo pabellón y unas piscinas. Para la nueva residencia adoptó el esquema de planta con patio interior, inspirado en los cortijos andaluces, de ahí que sea conocido como *El Cortijo*. En la actualidad, está muy reformado y ha desaparecido el muro trasero que lo cerraba. Alberga algunas dependencias de la universidad, como diversas cátedras, institutos y el salón de grados. Salvo su planta en "U", ha perdido la mayoría de sus elementos originales (ventanas, decoraciones...).

Muy cerca encontramos otro elemento singular dentro del jardín, la **fuente (7),** que según algunos se trasladó desde alguna otra finca. Su astil está realizado en mármol blanco, quizás procedente de las canteras de Almería o Italia.



Sarriko: marmol zuriaz egindako iturria
Sarriko: fuente en mármol blanco

Camino hacia los restos de Larrako Torre

Proseguimos por el camino que bordea el pequeño altozano que forma la finca y descendemos ligeramente hasta una zona donde se sitúan los **restos de Larrako Torre (8).**

La ubicación original de la torre de Larrako, adosada al primitivo caserío de Claudio Garay, era la parte trasera del actual ambulatorio de San Ignacio (en la calle Larrako Torre), donde

60ko hamarkadan eraman zuten dorrea leku horretara, eta lekualdaketan atzeko horma galdu zen.

Larreatarrak merkatariak ziren. XVI. mendearen lehen herenean, etxe handi eta dotorea edo jauregia eraiki zuten. Eraikinak, dorretxeetan inspiratu bazen ere, egoitza-asmo errenazentista zuen. Dekorazioari dagokionez, gure egunetara iritsi den dorrean elementu hauek nabarmen ditzakegu: leiho errenazentistak, horietako baten leiho-barrena "Erregeerregina Katolikoak estilo"dun bolekin apaindua, eta sarrerako punta-erdiko arkua, Deustuko Larreatarren armarriarekin.

Armarri hori, Carlos V. enperadoreak Cosme García Larrea almiranteari egindako emakida berezia izan zen. Almirantea Deustuko elizatean jaioa zen, dorrearen jabea izan zen eta Akisgranen Ezproiko Zaldun izendatu zuten. Borgoinako gurutzea agertzen da, eta gurtzearen erdian, *Toison* lepokoaren maila bat dago gainjarrita, eta azpian, eguzki bat, apaingarri gisa. Nobleedo kapare-koroa ere bazuen (gaur egun, ia desagertuta). *Toison* lepokoaren orlak (maila eta zirkuluekin) eta bildotsak barne hartzen dute (bildotsaren azpian, armadore edo merkatariaren marka agertzen da). Armarriaren gainean Jesusen eta Mariaren monogramak agertzen dira.

hoy hay un campo de futbito. En los años sesenta la trasladaron a este lugar y perdió el muro trasero.

Los Larrea fueron una familia de comerciantes. En el primer tercio del siglo XVI construyeron una mansión o palacio que, aunque inspirándose en parte en el modelo de las cases torre, recogía ya una renacentista voluntad residencial. Desde el punto de vista decorativo, destacan en la torre que ha llegado a nosotros las ventanas renacentistas, una de ellas con alféizar decorado con bolas de estilo Reyes Católicos, y el arco de acceso de medio punto, con el escudo del linaje de los Larrea de Deusto arriba.

El escudo fue una concesión especial del emperador Carlos V al almirante don Cosme García Larrea. Este almirante, natural de la anteiglesia de Deusto y dueño de la torre, fue armado Caballero de la Espuela en Aquisgrán. Representa una cruz ecotada o de Borgoña, en cuyo centro se halla superpuesto un eslabón del collar del Toisón y, debajo, un sol que parece un motivo decorativo. Dispuso también de una corona de noble o hidalgo titular, hoy ya casi desaparecida. Lo abraza la orla del collar del Toisón (con eslabones y redondeles) y el corderillo, debajo del cual aparece la marca de armador o comerciante. Encima del escudo aparecen monogramas de Jesús y María.





^

Larrako Dorrearen hondakinak

Restos de Larrako Torre



Deustuko kanala
Canal de Deusto

DEUSTUKO KANALA (1950-1967)

Kaien eta atrakalekuen edukiera handitzeko eta Bilboko portu lanpetua arintzeko asmoz eraiki zen Deustuko kanala. "MZV" enpresak (geroago, "Dragados") 17 urte eman zituen eraikitzen eta oso lan garestia izan zen. Eraikin asko lurrera bota behar izan zen, hala nola, etxeak, txaletak, "Etxezuri" etxeak eta Euskalduna auzoa, baita gor-mutuen eta itsuen ikastetxea ere (Deustun 1891n kokatu zena). Joanarazi zituztenak Olabeagan ("Penjamo" etxeetan) eta San Inazion (Etxe Amerikarretan) berriz kokatu zituzten. Langile batzuk hil ziren lanetan.

"Sarriko" finkaren lorategitik eraikin hauek ikus daitezke: "Nacional de Oxigeno" eraikina (20ko hamarkadakoa), "Ártica"-ko pabilioiak, "Vicinay S.A." lantegiaren kateak biltegiratzen ziren kaiak, eta "Maritima Candina" (1969. urtearen ondoren kokatu zena eta kanaletan operatu zuen azken ontzi-kontsignatario izan dena). Gauza bitxia da, kanaleko inguruan (garai batean padurez beterik zegoena), hegazti-espezie batzuk igarotzean oraindik atzean geratzen direla.

EL CANAL DE DEUSTO (1950-1967)

Fue construido con objeto de ampliar la capacidad de muelles y atraques, y así descongestionar el saturado puerto de Bilbao. Se tardó unos diecisiete años en construir y fue una obra muy costosa, realizada por la empresa "MZV", posteriormente "Dragados". Se tiraron casas, chalés, las casas de Etxezuri, el barrio de Euskalduna y el Colegio de Sordomudos y Ciegos, que se había establecido en Deusto en 1891. A las personas afectadas se las reubicó en Olabeaga (casas de Penjamo) y en San Ignacio (casas americanas). En las obras se produjeron varios fallecimientos.

Desde el jardín de la finca "Sarriko" se pueden ver el edificio "Nacional de Oxígeno" (años veinte), los pabellones de "Ártica", los muelles donde se almacenan las cadenas de la fábrica "Vicinay S. A.", y la "Marítima Candina", que se estableció en esa zona después de 1969 y ha sido la última consignataria en operar en el canal. Es curioso que en esta zona de antiguas marismas dominada por el canal haya aún hoy algunas especies de aves que, al pasar, se quedan rezagadas.

Eraikin horrek, "dorre" izena badu ere, zerikusi gutxi du Behe Erdi Aroko babes-dorreekin. Aurreko fatxadan familiaren hainbat merkataritza-marka agertzen dira, baita eguzki-motiboez markoztatutako hiru idi-begi edo arnasbide zirkular ere.

Hemendik metro gutxitara, Deustuko kanalaren ingurua eta itsasadarra -itsas eta merkataritza jardueren eremua- ikus ditzakegu.

Larrako Torre, a pesar de su nombre, poco tiene que ver ya con las torres defensivas de época bajomedieval. En su fachada delantera aparecen también diversas marcas comerciales de la familia y tres óculos o respiraderos circulares enmarcados por motivos solares.

A pocos metros de este punto podemos observar el entorno del canal de Deusto y la ría, espacios de actividad marinera y comercial.





Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultaterako kanpoko bidea

Camino exterior a la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales

Fakultatearen ondoan

Junto a la facultad

Behinolako "Sarriko" finka inguratzen duen bidetik jarraitzen badugu, **EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatera (9)** iritsiko gara.

Hemendik, Fakultatearen kanpoaldea ikus dezakegu: Jesús Rafael Basterrecheak proiektatu zuen eraikina, 1962an, eta inguruan duen parkean ederki txertatzen da. Alboko hegala itxura mailakatua du, lurraren topografiara egokitzeko. Ikasgelak kokatzen dira bertan.

Continuamos por el camino que rodea la antigua finca "Sarriko" y llegamos a la **Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales de la UPV (9).**

Desde este punto se puede apreciar el exterior de la facultad, proyecto de Jesús Rafael Basterrechea, de 1962. Es un edificio que se inserta armónicamente en el parque que lo rodea. Dispone de un ala lateral con forma escalonada, donde se sitúan las aulas, que se adaptan así a la topografía del terreno.

Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea

Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales



Eraikinaren barrualdean elementu hauek daude: oso ateondo erabilgarria, antzinako kapera (eraikinaren erpin bateko beirateen bidez, Cañadak eginak, kanpora begiratzen duena), bilera-gela eta Areto Nagusia. Areto Nagusian ikasleen batzarrak egiten ziren frankismoaren azken etapan (behin baino gehiagotan, polizia zaldiz sartu omen zen bertara bileraren bat sakabanatzera).

Hego-ekialderantz, hots, kanalerantz, begiratzen badugu, **Liburutegia (10)** ikusiko dugu. Lehenago futbol-zelaia zegoen leku berean dago. Fakultatearen multzoan, liburutegiaren erakinak itxura berezia du: oinplano zirkularreko dorrea da. Liburutegia espazio horretara egokitzen da, eta erdian toki hutsa geratzen da, sabaileiho batek goitik argiztatzen duena. Apalategiak eta leiho handi batzuetatik hurbil dauden irakurtzeko lekuak, modu erradialean antolatzen dira.

Leiho handiak dituen eta atondoa ikasgelekin lotzen dituen alboko korridore handiekiko paralelo jarraituko dugu ibiltzen.

En su interior destacan los siguientes elementos: un *hall* muy funcional, la antigua capilla (que se asoma al exterior en las vidrieras, obra de Cañada, existentes en uno de los vértices del edificio), la sala de reuniones y el Aula Magna. En esta última se celebraban las asambleas de estudiantes durante la época final del Franquismo. Se cuenta que la policía entró alguna vez a caballo en ella para disolver concentraciones.

Hacia la zona sureste, es decir, hacia el canal, se distingue el edificio de **la biblioteca (10).** Ocupa el espacio donde anteriormente estuvo situado el campo de fútbol. Destaca de forma especial en el conjunto de la facultad la forma de su construcción: una torre de planta circular. La biblioteca se adapta a dicho espacio, y queda así un espacio central vacante e iluminado cenitalmente por un gran lucernario. De forma radial se distribuyen, en primer lugar, las estanterías y, en segundo, y próximos a los grandes ventanales que los iluminan, los puestos de lectura.

Liburutegia
Biblioteca
V





Liburutegia
Biblioteca

Espazio gardena eta erabilgarria da, giza eskalan ere egindena. Era askotako materialak erabili dira: kareharria, atondoaren eta pasabidearen arteko harmailadian, eta marmol beltza gogorarazten duen terrazo beltza, dotorezia emateko. Beheko solairuan, Bizkaiko Labe Garaietako laborategiko hiru makina daude (saiakuntza-labe elektrikoa, gogortasuna egiaztatzeko gabi bat, eta tornu bat). Fakultateko Historia Ekonomikoko irakasle izan zen Emiliano Fernández de Pinedok ekarri zituen. Fakultatetik kanpo, 1960an monolito bat jarri zen, Miguel de Unamunoren omenez.

Fakultateko aurreko fatxadara iritsi gara. Eraikinaren konposizio bolumetrikoa eta eraikitzeko erabili ziren materialak (adreilua eta zura) azpimarratzen ditugu. Basterrecheak zeregin nabarmena izan zuen 50eko hamarkadaren bukaeraz geroztik arkitektura bizkaitarraren barruan funtzionalismoa zabaltzen. Fakultatearen eraikuntza-proiektuak organizismo nordikoaren eragin handia izan zuen, eta funtzionalismoa bertoko testuingurura egokitzeko ikasbidea eman zuen arkitektoak. Bere diseinuaren trebetasuna, fakultatea kokalekuan (zaindu beharreko txalet burges baten lorategia) bikain txertatzean datza. Materialak (arotz-lan metalikoak eta zurezko itxiturak) aukeratzean ere nabaritzen da ingurumena

Proseguimos nuestro recorrido en paralelo al gran corredor lateral, iluminado con amplios ventanales, que comunica el *hall* de acceso con las aulas. Es un espacio diáfano y muy funcional, realizado también a escala humana. Destaca el empleo de diversos materiales: piedra caliza en las escalinatas entre el *hall* y el propio pasillo, y terrazo negro, que lo dota de una gran elegancia (y recuerda a los mármoles negros). En su planta baja se conservan tres máquinas que proceden del laboratorio de Altos Hornos de Vizcaya y fueron traídas por el profesor de Historia Económica de la facultad, Emiliano Fernández de Pinedo; son un horno de pruebas eléctrico, un martillo pilón para comprobar la dureza y un torno. En el exterior de la facultad se levantó asimismo, hacia 1960, un monolito dedicado a Miguel de Unamuno.

Llegamos a la fachada delantera de la Facultad. Destacamos aquí la composición volumétrica del edificio y los materiales empleados (ladrillo y madera). Basterrechea tuvo un papel relevante en la difusión del funcionalismo dentro de la arquitectura vizcaína desde finales de la década de los cincuenta. En el proyecto de la facultad estuvo muy influido por el organicismo nórdico y dio toda una lección de cómo adaptar el funcionalismo al contexto local. El acierto de su diseño estriba en la perfecta



EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

1955eko maiatzaren 16an sortu zen. 1955eko urrian hasi ziren eskolak ematen, garai bateko Goi Mailako Merkataritza Ikasketen Eskolan (Elkano kalean). 1963/64 ikasturtean lekualdatu ziren Sarrikora. Orduan, Fakultatea Valladolideko Unibertsitatearen menpean zegoen, eta 1968/69 ikasturteaz geroztik, Bilboko Unibertsitate Autonomoaren (geroago, EHU izango zena) menpeko izan zen.

Garai hartan gero eta ikasle-eskaintza handiagoa zegoenez, 1989ko urtarrilaren 5ean hitzarmen bat sinatu zen Bilboko Udalarekin unibertsitatea handitu eta eraberritzeko. Lan horiek, irakasleen bulegoak kokatzeko eraikina eraikitzea barne, 1995eko irailean hasi ziren. Eraikin nagusia eta "Blanco Garrido" eraikina (Arte Ederren eraikina izan zena) 1997an bukatu ziren birmoldatzen.

Azpimarratu beharra dago, frankismoaren azken garaian Fakultateak garaiko intelektualen artean izan zuen garrantzia. 60ko hamarkadaren bukaeran eta 70eko hamarkadaren hasieran, kulturaren aldeko eta erregimenaren aurkako irakinaldia bizi izan zen unibertsitatean.

Ekonomiako Nobel saridun asko izan dira Fakultatean, esaterako, Klein, Modigliani edo Nash, eta Joseph Stiglitz "honoris causa" doktore izendatu dute bertan. Fakultateko irakasle eta ikasle asko, Eusko Jaurlaritzako sailburu eta Espainiako gobernuko ministro izatera heldu dira.

LA FACULTAD DE CIENCIAS ECONÓMICAS Y EMPRESARIALES

Creada el 16 de mayo de 1955, las clases se empezaron a impartir en octubre de 1955 en la entonces llamada Escuela de Altos Estudios Mercantiles (c/ Elcano). Fue en el curso 1963-1964 cuando se trasladó a lo que hoy llamamos Sarriko. En aquel entonces, la facultad dependía de la Universidad de Valladolid; en 1968-1969 pasó a depender de la recién creada Universidad Autónoma de Bilbao (posteriormente UPV/EHU).

El 5 de enero de 1989, ante la creciente demanda estudiantil, se firmó un convenio con el Excmo. Ayuntamiento de Bilbao para la ampliación y reforma del centro. Estas obras, que incluían la construcción del edificio de despachos de profesores, comenzaron en septiembre de 1995. La remodelación de los edificios central y del denominado Blanco Garrido (antiguamente Bellas Artes) finalizó a lo largo de 1997.

Hay que poner de relieve la importancia que adquirió esta facultad durante la época final del Franquismo entre la intelectualidad del momento. Así, a finales de los sesenta y comienzos de los setenta, se vive en ella una época de gran ebullición cultural y de contestación política al régimen.

La facultad ha recibido la visita de varios premios Nobel en Economía: Klein, Modigliani, Nash; y ha investido como Doctor Honoris Causa a Joseph Stiglitz. De entre sus profesores y alumnos han salido abundantes consejeros y ministros del Gobierno vasco y central.

zaintzeko jarrera nordiko hura. Berak ere proiektatu zuen M. de Bertendona Institutua.

Eraikin eratxikia 1995ean eraiki zen, Rafael Cardenal arkitektoaren proiektuaren arabera. Eraikin berria (bistako adreilua erabili zuen) zaharrera begirunez egokitzen jakin izan zuen.

Agirre Lehendakariaren etorbidera irtengo gara berriro. Etorbidea zeharkatu eta Benidorm kalerantz abiatuko gara, Mediterraneo Itsasoaren kalearekin gurutzatzen den tokiraino. Gaur egun Ibarrekolanda deritzonaren beste elementu nabarmen batzuen bila arituko gara.

Benidorm kalearen eta Mediterraneo Itsasoaren kalearen arteko kantoia

Gaur egun Ibarrekolanda denak, bost zona barne hartzen zituen behinola: Ibarrekolanda bera, Landabaso, Larrauri, San Miguel eta "Sarriko" finka.

Benidorm eta Mediterraneo Itsasoaren kaleen arteko kantoian gaudela aurrera begiratzen badugu, **San Jose Ikastetxea (11)** ikusiko dugu. Ikastetxe horrek garrantzi handia izan zuen auzoaren bizitzan, zeren eta auzotar

integración de la facultad con su complejo emplazamiento: el jardín de un chalé burgués que había que respetar. En la elección de los materiales (carpinterías metálicas y cierres de madera), se percibe también esa actitud nórdica de respeto al entorno. Otra obra de este arquitecto es el Instituto M. de Bertendona.

El edificio anexo se construyó en 1995, bajo proyecto del arquitecto Rafael Cardenal, quien supo armonizar de forma respetuosa la nueva construcción (empleo del ladrillo cara vista) con la antigua.

Volvemos a salir a Lehendakari Aguirre y la cruzamos para dirigirnos por la calle Benidorm hasta el cruce con Mediterráneo. Buscamos otros elementos destacados de lo que hoy se suele llamar Ibarrekolanda.

Esquina entre las calles Benidorm y Mar Mediterráneo

Lo que hoy se entiende como Ibarrekolanda comprendía antiguamente cinco zonas: Ibarrekolanda propiamente dicha, Landabaso, Larrauri, San Miguel y la finca "Sarriko".

Desde la esquina entre las dos calles citadas se puede

Iñaki "Txikerra"ren baserri zaharra.

Antiguo caserío de Iñaki "Txikerra"





IBARREKOLANDA: BILBOK OKUPATUTAKO LANDA

"Ibarrekolanda" izenaren jatorria, "Sarriko" izenarena baino zaharragoa da; izan ere, XVIII. mendean "Ibarralanda" aipatzen zen, hots, Deustuko elizateko "Ybarra" baserriaren aurreko landa. XIX. mendearen bukaeran, 1887an Bilbo-Areeta trenbidea ustiatzen hasi zenean, "Ibarrekolanda" izena nagusituz joan zen inguru horretako baserri batzuk biltzeko: "Arbolagaña", "Longane", "Iturriaga", "Landako", "Rondoko", "Ugarteko", "Giñako", "Laubide", "Mazo"... Izen orokor hori, "Mazo" baserriaren aurrean zegoen geralekua (geroago, tren-geltokia) egoteak sendotu zuen, baita hurbil hilerria egoteak eta burgesiako egoitza-eraikinak eraikitzeak ere. 1933an, "Mazo" geltokia eta San Pedro inguru-nea lotzen zituen bidea,"Ibarrekolandako bidea" bezala ezagutzen zen.

Auzoa 60ko hamarkadan okupatu zen benetan, 40ko hamarkadan San Inazio etxaldea sortu ondoren, asmo gutxiagoko eraikinak eraiki zirenean.

IBARREKOLANDA: LA CAMPA OCUPADA POR BILBAO

El nombre de "Ibarrekolanda" es de origen más antiguo que "Sarriko" (aparece ya citado en el siglo XVIII como "Ibarralanda", y se refiere a la campa que existía frente al caserío "Ybarra", dentro de la anteiglesia de Deusto). A finales del XIX, posiblemente al iniciarse la explotación de la línea férrea de Bilbao a Las Arenas en 1887, se fue imponiendo el nombre de "Ibarrekolanda" para agrupar a una serie de caseríos de la zona: "Arbolagaña", "Longane", "Iturriaga", "Landako", "Rondoko", "Ugarteko", "Giñako", "Laubide", "Mazo"… Esta denominación general se vio reforzada por la existencia de un apeadero, luego estación de ferrocarril, frente al caserío "Mazo", así como por la proximidad del cementerio y por la construcción de edificios residenciales de la burguesía. En 1933, al camino que unía la citada estación de "Mazo" y la zona de San Pedro se le conocía ya como "camino de Ibarrekolanda".

La verdadera ocupación del barrio corresponde a los años sesenta, cuando, después de la creación del grupo de viviendas de San Ignacio en los cuarenta, se levantarán otras construcciones con ideas menos ambiciosas que las que inspiraron aquel grupo.

askok ikastetxean ikasi baitzuten. Familia Santuaren Bordeleko Kongregazioaren (Pedro Bienvenido Noaillesek eratu zuen XIX. mendean) adarretako batekoa bat zen, hain zuzen, Maria adarrekoa (geroago, Loretoren alabak edo San Jose Kongregazioa izan zena). Auzoan 1938an kokatu ziren, Otaolatarren txaletean. 1945ean, Guardia Zibileko umezurtzak (neskak) hartzeko ikastetxe berria eraikitzeko izapideak hasi ziren. Eraikuntzalanak 1958an bukatu ziren. 1978an, ikastetxea Estatuari eskualdatu zitzaion eta bertan Ibarrekolandako Institutua kokatu zen.

Ibarrekolandako parrokia (12) Rafael Fontanek eraiki zuen, 1945etik 1958ra bitartean, eta Maria Amaren Elizaren izenpeko egin zuten. Kaperak estilo neogotikoa du.

Bertan, **Rufino Basañez arkitekoak 1968an eraiki zituen etxebizitza (13)** batzuk ere azpimarra ditzakegu (Benidorm kalea, 4. zk). Ibarrekolanda urbanizatu zen garaiko eraikin bat ikusten dugu. Bistako adreilua (inguruko eraikinetan asko erabiltzen zena) eta begiratokiak nabarmentzen dira, guzti hori, tximinia itzel batzuek nabarmenduta. San Juan kooperatibak sustatu zituen. Garaiko eskaintzetako etxebizitzek baino metro koadro gehiagoko etxeak nahi zituzten pertsona batzuek sortu zuten kooperatiba hura.

contemplar al frente el **colegio San José (11)**. El colegio tuvo mucha importancia en la vida del barrio, ya que muchas personas pasaron por sus aulas. Pertenecía a una de las ramas de la congregación de la Sagrada Familia de Burdeos (cuyo fundador había sido Pedro Bienvenido Noailles en el siglo XIX), en concreto a la rama de María, posteriormente denominada "Hijas de Loreto" o "Congregación de San José". Se asentaron en el barrio en 1938, en el chalé de la familia Otaola. En 1945 se iniciaron los trámites para la construcción de un nuevo colegio para acoger a las huérfanas de la Guardia Civil. Las obras finalizaron en 1958. En 1978, el colegio fue traspasado al Estado y se instaló en él el Instituto de Ibarrekolanda.

La **parroquia de Ibarrekolanda (12)** fue construida por Rafael Fontán entre 1945 y 1958 bajo la advocación de María Madre de la Iglesia. La capilla es de estilo neogótico.

También destaca, en el nº4 de la calle Benidorm, un conjunto de **viviendas construidas por el arquitecto Rufino Basáñez en 1968 (13).** Aquí observamos ya un edificio de la época en que, básicamente, se urbaniza Ibarrekolanda. Destacan la utilización del ladrillo cara vista (muy utilizado en las construcciones del entorno) y los miradores, todo ello remarcado por unas potentes chimeneas. Fue promovido por



Ibarrekolandako parrokia
Parroquia de Ibarrekolanda

Antzinako San Jose Ikastetxea
Antiguo colegio de San José





Mediterraneo Itsasoaren kalearen eta Benidorm kalearen bidegurutzetik gertu, **"Arbolagaña" txakolindegia (14)** zegoen. Iragan baserritarraren elementu zahar hura, aurrean bananondo bat edukitzeagatik ezagutzen zen: bananondo haren gainean zurezko plataforma bat

la cooperativa San Juan, formada por un grupo de personas que querían casas con más metros cuadrados que las que se ofrecían en el momento.

Cerca del cruce de las calles Mediterráneo y Benidorm se situaba el **antiguo txakoli de**

GARAPEN-ALDIKO ESPEKULAZIOZKO HIRIGINTZA

60ko hamarkada "miresgarria", hazkuntza izugarrizko garaia izan zen Euskal Herrian eta batez ere, Bilbon. Garai hartan, industri garapena eta kontsumoaren hasiera ez ezik, higiezinen espekulazio itzela eta etxebizitza-politika eskasa ere egon ziren.

1960. urteaz geroztik, botere publikoak, egoitza-eskari gorakorrari erantzuteko gai ez zela onartu zuen eta erraztasun handiak eman zituen sektore pribatuak eskumenak bere gain har zitzan. Horrela agertu ziren gorakako eraikuntza-sustapen handiak eta ondorioz, auzotarren arteko espazioa desagertu zen. 60ko hamarkadaren bukaeran, etxebizitza-blokeak eraikitzen hasi ziren Ibarrekolandan, hiri-espazioa ahalik eta gehien aprobetxatu zela. Horren ondorioz, biztanleriaren dentsitatea izugarria izan zen eta hirigintza-sustatzaileen mozkinak, izugarriak. Eta inguruarekiko errespetua galdu egin zen.

URBANISMO ESPECULATIVO EN LA ÉPOCA DEL DESARROLLO

La prodigiosa década de los sesenta significó para el País Vasco, y más concretamente para el Gran Bilbao, un momento de crecimiento de enormes proporciones. Junto al desarrollo industrial y el comienzo del consumo, esta época estuvo marcada por una gran especulación inmobiliaria y una deficiente política de vivienda.

A partir de 1960, el poder público va a reconocer su incapacidad para responder a la creciente demanda residencial y va a dar facilidades para que el sector privado asuma competencias. Aparecen así las grandes promociones en altura y desaparece el espacio íntimo vecinal. A finales de esa década se inicia en Ibarrekolanda la construcción de pisos en bloques con un aprovechamiento máximo del espacio urbano. Se produce así una enorme densidad de población, acompañada del máximo de beneficios para los promotores. Al mismo tiempo se pierde el respeto por el entorno.

zegoen (''arbolaren gainean''), eta plataforman, terraza bat. Lehen solairuko balkoitik iristen zen terraza bitxi horretara. ''Arbolagaña'' txakolindegian auzoko lehenengo telefonoetako bat egon zen, eta inguruko baserrietako auzokoei egindako deiak jasotzen ziren bertan.

Jarraian, Mediterraneo Itsasoaren kalean barrena ibiliko gara. Eskuinaldera begiratzen badugu, **60ko hamarkadako eraikinetako bat (15)** ikusiko dugu: diruz lagundutako errenta mugatuko 533 etxebizitzako proiektua, Gabriel Fontan arkitektoarena.

Mediterraneo Itsasoaren kalearen eta Arrue Margolarien kalearen arteko kantoia

Auzotar askok gogoratzen dute oraindik baserrien ordez gorakako eraikuntzak jarri zirela. Prozesu hori, ordea, ez zen beti modu berean egin.

Kantoi honetatik, Bilboko erdigunearen kontrako norabidean, ''San Inazio Loiolakoa'' etxaldea ikusten dugu. Frankismoaren lehen garaiko urbanismoaren erakusgarri da; ordenatuagoa da eta garaiko ideologiaren kutsua du. Hemen inguratzen gaituzten eraikinek, berriz, hiria antolatzeko moduan izandako

"Arbolagaña" (14). Este antiguo elemento del pasado ruralizante era conocido por tener frente a él un platanero sobre el cual había una plataforma de madera que se utilizaba, a modo de terraza, para disfrute de los comensales; se accedía a ella a través del balcón de la primera planta. El Arbolagaña tuvo uno de los primeros teléfonos del barrio y en el txakoli se recogían encargos para los vecinos de los caseríos del entorno.

A continuación vamos a recorrer la calle Mar Mediterráneo, en la cual podremos apreciar, a mano derecha, un ejemplo de **construcciones de la década de los sesenta (15)**; se trata de un proyecto de 533 viviendas de renta limitada subvencionada, obra del arquitecto Gabriel Fontán.

Esquina de las calles Mediterráneo y Pintores Arrue

Muchas de las personas que han vivido en este barrio recuerdan aún hoy cómo se fueron tirando los antiguos caseríos y fueron sustituidos por edificaciones en altura. Pero ese proceso no se realizó siempre de la misma manera.

Desde este punto podemos apreciar al fondo, en dirección contraria al centro de Bilbao,







^

Ibarrekolanda plaza

Plaza de Ibarrekolanda

"etena" erakusten dute, eta 60ko hamarkadako eta 70eko hamarkadako lehen urteotako garapen-aldiaren hirigintzaren adierazgarri dira.

Inguruan, 70eko hamarkadako bi eraikin daude: **EHUko ikasleen egoitza (16)**, eta **"etxe urdinak"(17)**, José Sainz Gironellaren proiektuaren arabera eta garai bateko "Banderas" zinema-aretoa zegoen orubean 1972. urte inguruan eraiki zirenak.

Ibarrekolanda plazara (18) iritsi gara. Behinola "Campa de Helguera" bezala ezagutzen zen (eta goialdea, "La Arboleda"). Behealdean, Tellaetxe bidearen ondoan, "Susunse" baserria zegoen (70eko hamarkadan eraitsi zen). Gaur egun, haur-jolasak daude parkean, haurrek soinuekin saiakuntzak egin ditzaten: musikagile batzuen

el grupo de viviendas San Ignacio de Loyola. Esta barriada representa el urbanismo de la primera época del Franquismo, de carácter más ordenado y marcado por la ideología. Por el contrario, los edificios que aquí nos rodean muestran un corte en la forma de hacer ciudad y representan el urbanismo de la época de desarrollo de los años sesenta y primeros setenta.

En las inmediaciones se localizan dos edificios de los setenta: la **residencia de estudiantes de la UPV (16)**; y las **"casas azules" (17),** obra de José Sainz Gironella, levantadas hacia 1972 y que ocuparon el solar donde anteriormente estuvo el cine Banderas.

Llegamos a **la plaza de Ibarrekolanda (18),** espacio antiguamente conocido como *Campa de Helguera* (a su zona

izenak eta datak adierazten dituzten txapatxo batzuk daude zoruan. Kontserbatorioaren ondoan, lorategi bat dago, landare-espezie aromatikoekin: erromeroa, ezkaia, izpilikua, mendafina, salbia arrunta eta "Sierra San Antonio" salbia.

Eta plazaren buru, **"Juan Crisóstomo de Arriaga" Musika Kontserbatorioa (19).** Bilboko egungo kontserbatorioaren arkitektura-proiektuaren lehiaketa, Roberto Ercilla eta Miguel Ángel Campos arkitektoek irabazi zuten. Eraikina 2007an inauguratu zen. Kanpoko horma, errezel-horma da: bertatik argia sartzen da eta isolatzailea da, ez baita gainerako egituran txertatzen. Gaur egun Bilbon proiektatzen ari den arkitektura garaikidearen motakoa da. Eraikinaren barruan, oinarrizko mailako eta erdi mailako musika-ikasketetarako instalazioak daude. Musika irakasteko eta ikasteko behar den oro du: ikasgelak, liburutegia, jantokia/egongela, eta entzunareto ikaragarria, zeinean ikasleek nahiz irakasleek kontzertuak ematen dituzten. Kontserbatorioaren barruan "la Escuela de Lutheria" dago: bi espezialitate irakasten dira bertan; alde batetik, arku-instrumentuak (biolina, biola, txeloa...) artisau-moduan fabrikatzeko modalitatea, eta bestetik, txistuak eta bere familiako instrumentuak modu mekanizatuan fabrikatzeko modalitatea.

más alta se le llamaba *La Arboleda*). En su parte baja y junto al camino de Tellaetxe, se situaba el caserío "Susunse", que fue derruido en los años setenta. Actualmente, la plaza dispone de una zona dedicada a juegos infantiles, donde los niños pueden experimentar con los sonidos: en su suelo hay pequeñas chapitas con nombres y fechas de diferentes compositores. Junto al Conservatorio hay también un jardín con diferentes especies vegetales aromáticas: romero, tomillo, lavanda, hierbabuena, salvia común y salvia Sierra de San Antonio.

Presidiendo la plaza se sitúa el **Conservatorio de Música Juan Crisóstomo de Arriaga (19).** El proyecto arquitectónico del actual Conservatorio de Bilbao fue ganado por los arquitectos Roberto Ercilla y Miguel Ángel Campos. Fue inaugurado en 2007. El muro exterior es un muro cortina que permite que entre la luz y sirve de aislante, ya que no se inserta en el resto de la estructura. Corresponde al tipo de arquitectura contemporánea que se está realizando hoy en día en Bilbao. Este edificio alberga en su interior las instalaciones para las enseñanzas de música de grado elemental y medio. Dispone de todo lo necesario para impartir y aprender música: aulas de estudio, biblioteca, sala-comedor y un impresionante auditorio en el que se programan conciertos interpretados tanto por alumnos como por profesores. Dentro del Conservatorio se encuentra la Escuela de Lutheria, en la que se imparten dos especialidades diferentes: por un lado, la modalidad de construcción artesanal de instrumentos de arco (violín, viola, chelo, etc.) y, por otro, la modalidad de construcción mecanizada de txistus y su familia.





Juan Crisóstomo de Arriaga
Musika Kontserbatorioa

Conservatorio de Música
Juan Crisóstomo de Arriaga